

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

5269

EBAZPENA, 2025eko urriaren 31koa, Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakariarena, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) jarduketa-eremuetako prestakuntza-beka bat ematen duena.

Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakariaren 2025eko uztailaren 8ko Ebazpenaren bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduketa-eremuetako prestakuntza-beka baten oinarriak eta deialdia argitaratu ziren (2025eko abuztuaren 25a EHAA, 159. zk.).

Deialdiaren oinarri arautzaileek ezartzen dutenez, eskaerak Balorazio Batzorde batek aztertu eta balioetsiko ditu, eta egindako balorazioa idazkaritza nagusiari helaraziko dio, deialdiaren organo kudeatzailea den aldetik. Idazkaritza nagusiak, bere aldetik, esleipen-proposamen bat egingo du, eta LEA/AVCko lehendakariari helaraziko dio. Proposamen horretan, halaber, ordezkoren zerrenda jasoko da, zeinak, Balorazio Batzordeak ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera, beka betetzeko deitu ahal izango baitira, uko egiterik edo bestelako gorabeherarik gertatuz gero. LEA/AVCko lehendakariak, idazkaritza nagusiak helarazitako esleipen-proposamena ikusita, beka ematea erabakiko du ebazpen baten bidez. Ebazpen hori LEA/AVCren webgunean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, herritarrek horren berri izan dezaten.

Balorazio Batzordeak eskabideak aztertu ditu, eta, batzordeak egindako balorazioaren arabera, Idazkaritza Nagusiak dagokion esleipen-proposamena egin du, deialdia arautzen duten oinarrien 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, eta egindako esleipen-proposamena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduketa-eremuetako prestakuntza-beka I. eranskinean zehazten den pertsonari esleitzea.

Bigarrena.– Beka 2025eko azaroaren 10ean hasiko da.

Hirugarrena.– Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta zazpi eguneko epean, I. eranskinean zehazten den pertsonak idazki bat bidali beharko du, beka onartzen duela eta beka ematearen ondoriozko betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen duela adieraziz.

Onarpen-idazkia epe horretan jasotzen ez bada, ulertuko da uko egiten diola beka emateko prozeduran jarraitzeari, eta II. eranskinean agertzen diren ordezkoei bete ahal izango dute beka, bertan zehaztutako lehentasun-hurrenkerari jarraituz.

Laugarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren pertsonak ordezkotzat izendatzea, bertan adierazitako lehentasun-hurrenkeran.

Bosgarrena.– III. eranskinean zerrendatzen diren pertsonen beka ukatzea, bertan adierazitako arrazoiengatik.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, herritarrek horren berri izan dezaten.

Ebazpen honek amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko LEAko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2025eko urriaren 31.

Lehiaren Euskal Agintaritzako lehendakaria,
AINARA HERCE SAN MARTIN.

I. ERANSKINA

ONURADUNA

Onuraduna	NAN	Puntuak
Iñigo Beldarrain González	***4702**	44,50

II. ERANSKINA

ORDEZKOEN ZERRENDA

Hurrenkera	Ordezkoak	NAN	Puntuak
1	Naroa Arana Bastida	***9796**	38,75
2	Alicia Tuñón Legaristi	***0778**	35,38

III. ERANSKINA

BEKA UKATZEA

Espediente-zenbakia	Interesduna	Arrazoa
001-1113106	Idoia Larraza Arocena	Ez ditu betetzen deialdian ezarritako irizpideak
008-1113106	Irati Oleaga Colio	Ez ditu betetzen deialdian ezarritako irizpideak
012-1113106	June Renteria Gerediaga	Atzera egin du edo atzera egindatzat jotzen da
009-1113106	Gorka Bilbao González	Atzera egin du edo atzera egindatzat jotzen da
010-1113106	Pedro Sangalli Otaegui	Atzera egin du edo atzera egindatzat jotzen da
013-1113106	Iker Urrutxi Ortiz	Atzera egin du edo atzera egindatzat jotzen da
002-1113106	Rubella Silvia Contreras Ramos	Ez du puntuazio nahikoa lortu lehenengo fasean
006-1113106	Maialen Jesús Hornillos	Ez du puntuazio nahikoa lortu bigarren fasean
004-1113106	Alex Egaña Torralba	Ez du puntuazio nahikoa lortu bigarren fasean
011-1113106	Marcos Del Río Lamas	Ez du puntuazio nahikoa lortu bigarren fasean